

---

# FONTES LINGVÆ VASCONVM



## PAPEREZKO ALTXORRAK TESOROS DE PAPEL

Katalogoa  
Catálogo

---

otsailaren 15etik martxoaren 31ra  
15 febrero - 31 marzo

---

AGN

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra

# *Fontes Linguae Vasconum* Paperezko altxorrak

Mende erdi igaro da Nafarroako Foru Diputazioak *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu zuenetik, euskal hizkuntzalaritzako erreferentea egun.

Edukien artean, ikerketa lanak ez ezik, nabarmentzekoa da aldizkariak sustaturiko euskal testu zaharren bilketa, azterketa eta edizio lana, ikertzaileen eskura paraturik hainbat artxibo eta bildumatan sakabanaturik zeudenak.

Testu zaharrak dira, beraz, ikerketa filologiko ororen abiapuntu, *fontes* edo iturriak; hizkuntzen iragana eza-gutzeko ezinbesteko lanabesa. Horratik, xede horretarako ez dute agiri guztiek garrantzi berdina.

Erakusketa honetan, aldizkariaren ibilbideari buruzko atala ez ezik, bisitariak gehienbat Nafarroan gordetzen diren dokumentu zahar original nabarmenen aukera bat ikusi ahal izango du, eta konprenitu zer dela-eta diren horren garrantzitsuak Euskal Filologiarako.



# 1 *Fontes Linguae Vasconum* sortu da

---

*Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren sorrera ez zen gertakari isolatua izan. Nafarroako Foru Diputazioak eta horren baitan Vi-anako Printzea erakundeak eta Euskararen Aldeko Sailak (1957-1972) euskararen eta Nafarroako ondarea sustatzeko abian jarritako zenbait ekimenen baitan ulertu behar da.

Bloke honek garaiko dokumentu eta argazki zenbait ditu, Euskararen Aldeko Sailak egindako lanaren eta aldizkariaren beraren bilakaeraren erakusgarri.



Uztarroze (1965. urtea). Ezkerretik eskuinera, gizonak: Jose Maria Satrustegi, Luis Maria Irigarai, Pedro Diez de Ultzurrun, Jose Angel Irigarai eta Aingeru Irigarai. Emakumeak: Rikarda Perez Marko, Teodora Laiana eta Timotea Labari. (Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren funtsa)

Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
Euskararen Aldeko Sailaren sorreraren jakinarazpen elebiduna Nafarroako Aldizkari Ofizialean	1957	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Bertsolari txapelketen eskuorriak	60ko hamarkada	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Bertsolari-txapelketen argazkiak: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Alfontso Irigoien eta Angel Aldaz (Etxarri-Aranatz, 1961)</li> <li>▪ Txapelketa Lesakan (1961)</li> <li>▪ Epaimahaia Etxarri-Aranatzen (1961): Jose Agerre, Antonio Zabala, Aingeru Irigarai, Pedro Diez de Ultzurrun eta Antonio Arrue</li> <li>▪ Alfontso Irigoien eta Urbano Egozkue (Elizondo 1960)</li> </ul>	1960-1961	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Argazkia: Uztarrozeko azken euskaldunetarik bi	1965	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Euskara jakitegatik haurrei emandako diplomak eta haiek egiteko materialak	50eko hamarkada	Diez de Ultzurrun-Sagala eta Zubeldia-Lizarraga familiaren bilduma
Euskaraz jakitegatik haurrei saritzat emandako Nafarroako Aurrezki Kutxaren libretak	50eko hamarkada	Diez de Ultzurrun-Sagala eta Flores-Ezkurdia familien bilduma

Azterketen egunetako argazkiak:	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Arano (1961)</li> <li>▪ Lekunberri (1959)</li> <li>▪ Uztegi (1958)</li> <li>▪ Lizarragabengoa (1957)</li> <li>▪ Lakuntza (1957)</li> <li>▪ Kokapen ezagunik gabe</li> </ul>	1957-1961	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Sakanako euskara azterketen inguruko dokumentazioa	1957	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma	
Sari-banaketen argazkiak:	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Auza (1959-09-20)</li> <li>▪ Betelu (1959-10-25)</li> <li>▪ Arbizu (1958-06-22)</li> <li>▪ Etxaleku (1958ko maiatza)</li> </ul>	1958-1959	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma
Ume euskaldunei sariak emateko ekitaldien eskuorriak	50-60etako hamarkadak	Diez de Ultzurrun-Sagala familiaren bilduma	
<i>Príncipe de Viana</i> aldizkariaren euskararen sustapenerako gehigarri hilabetekaria	1966ko abuztua	AGN, Hemeroteca	
<i>Fontes Linguae Vasconum</i> aldizkariaren hiru garaitako aleak	1. zenbakia (1969), 111.a (2009) eta azkena, 126.a (2018)	AGN, Hemeroteca	

# 2


## Testu zaharrenak

Inguruko hizkuntzekin erkatuta, euskarazko testu idatziak ez dira oso zaharrak. XVI. mendea baino lehen nekez aurki daiteke idazki luzeegirik. Hartara, Erdi Aroko lekukotasunak baliagarri bezain urriak dira ikertzaileentzat.

Atal honek Erdi Aroko dokumentu originalen lagin bat dakar.

### Atal honetan rakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
<i>Pater noster</i> txikia	1425 aurrekoa	Catedral de Pamplona, ACP, Códice 7
Leireko kartularioa	XI	AGN, CODICES_D-1, fol. 269
Zalba eta San Martinen gutunak	1416	AGN, COMPTOS_REG. 339, fol. 109
<i>-eric vere gogoan</i> testu zatia	ca. 1294	AGN, COMPTOS_DOCS, caj. 31-1, fol. 11v
Nafarroako Forua	XIV.eko kopia	AGN, CODICES_A-3, fol. 94v



Martin de San Martinen eta Matxin de Zalbaren gutunak  
(XV. mendea)  
(NEAN. Kontuak. 339 Erregistroa, 109. folioa)



# 3

## Desagertutako aldaerak

Antzina euskaldun izandako hainbat udalerritan euskara galdu da azken mendeetan. Zenbaitetan, gaur egun hiztunik ez dagoenez, testu zaharrak dira toki horietako euskara nolakoa zen ezagutzeko modu bakarra.

Sail honetan gehitutako testu zaharrak galdurik edo galzorian dauden aldaera dialektaletan daude idatzirik.

### Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
Joakin Lizarragaren sermoiak	ca. 1800	AGN, AP_BONA-PARTE, N.43, pág. 252-253.
Imarkoaingo koplak	1600	AGN, CORTE_MAYOR, N.296389, fol. 24v
Frantzisko Elizalderen dotrina	1735	Irigarai familiaren bilduma
XVI. mendeko euskarazko eta gaztelaniazko liburu batekin egindako enkoaderazioa	XVI	Irigarai familiaren bilduma
Erronkarierez idatzitako dotrina	XIX	AGN, AP_BONA-PARTE, N.116
Joan Beriainen dotrina	1626	Irigarai familiaren bilduma

142 Acto Fedezcoa. 116

Ene Teina eta Jangoico Verdadero  
zrena, nic sinestan diezud, Zutan  
zrela. ayta Jangoico, Semea, Jangoico,  
Espixitu Sayntu Seyna Jangoico  
irur Persona distintorir, eta Jangoi-  
cobat Berdaderoric: zrela eterno  
Infinitoqui Sabio, Justo, gayza guzietan  
Poderoso, gucien Principio eta fin, eta  
Remunerazale zren bicala onac  
premietan duzula Ceuriatz eta gays-  
roac Iburneaz gaztiuetan; Sinestan  
diezud Jesu-Christo ene Teina, dela  
Jangoico eta Guizon Verdadero Sorru-  
zela Amaberginaren ganic padeci-  
tuciola Pasione eta Muerte Doloro-  
soric gore Redimi eta Salbeta gatic  
Resucitatuzela iganzela Ceurietra-  
biardiola uzuli Juicioco eounian  
Mundiaren Juzquetra, eta dagola

Dotrina Erronkaribarko euskalkian (XIX. m)  
(NEAN. AA. Partikularrak. Bonaparte, 116. zk)

# 4

## Euskara bereziki aberatsa eta interesgarria

Testu guztiek ez dute informazio bera ematen antzinako euskararen ezaugarriak aztertu nahi direnean. Testu batzuek datu berri edo ezezagun gutxi ematen dute hiztegiak, egiturez, adizkiez eta abarrez. Aitzitik, beste batzuk, oso laburrak izan arren, oso eman-korrek dira.

Atal honetan zenbait arrazoirengatik bereziki aberatsak eta interesgarriak diren dokumentuak erakutsi dira.

### Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
San Vicenteko (Urraulbeiti) auzibidea	1578	AGN, CONSEJO_REAL, N.11330, fols. 205v-206
Larrasoañako (Esteribar) auzibidea	1579	AGN, CONSEJO_REAL, N.87969, fol. 54
Orokietako (Basaburua) auzibidea	1578	AGN, CONSEJO_REAL, fol. 33
Joanes Leizarragaren <i>Testamentu Berria</i>	1571	BGN, TB-Lei
Pedro Agerre "Axular"-en <i>Gero</i>	1643	Biblioteca Central de Capuchinos, BCC, 1198-2-25



Joanes Leizarragaren Testamentu berriaren itzulpena (1571.  
urtea)  
(BGN. TB-Lei)

# 5

## Euskara idatzia, erlijioaz haratago

Euskara erlijioaren esparruan erabili da batez ere, euskara baitzen Elizak kristau-dotrina jende xumeenari (eta, oro har, elebakarrari) helarazteko tresna. Horren ondorioz, erlijioaren esparrutik kanpoko testuak eskasak bezain interesgarriak dira, hizkuntza idatziaren beste erabilera batzuk azaltzen baitituzte.

Bloke honetan, besteak beste, gutun, koplak eta bando zenbait erakutsi dira.

### Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
Joan Amenduxen epitafioa	XVI	AGN, CODICES_L.4, fol. 26
Lazarragaren eskuizkribua	XVI bukaera - XVII hasiera	Biblioteca de Koldo Mitxelena Kulturunea, Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa, 091 PERber
Berako olagizonaren eskutitzak	1674	AGN, CONSEJO_REAL, N.228956, fol. 7 Ayuntamiento
Reilleren Iruñeko bandoa	1811	Ayuntamiento de Pamplona, AMP Órdenes y Circulares, leg. 5, n. 35

J. G. de Benau

X

7

Berako olagizon batek idatzitako gutuna  
 (NEAN.Errege Epaitegiak, 228596. zk., 7r)

Ona gaura ofione foroso bat ofae-  
 tituarig obligaturarig propio onun  
 bidalceza arrasonetan Arun biazfal  
 sagane Biar bainarig Edirin amara  
 onnetaco Echalarun obligacione ba-  
 tran eta dombora gurego ce gzanig  
 Erzan dudena bano eta astronotan  
 Cui punta aurigarig bi Epun galdude di-  
 tut Ceng qui belatu barnaute oraxeste  
 an eta ala ory. Equitan deraucut Equin  
 deacada gure fauone Egoncear bi erun  
 Curual diruarig bice al di batan  
 falta gzanin badace eta dozena  
 bat Erango oqui eta baba eta toyo  
 Equitan digut despacha de baze gure an  
 gastez cengarig Biar Cagzi amara  
 Edirin biar du te Beran gure bati  
 Carra Jernisac bi guina (Cayala)

Berako olagizon batek idatzitako gutuna (1674. urtea) (NEAN.Errege Epaitegiak, 228596. zk., 7r)

# 6


## Hizkuntzari buruzko hausnarketa

Euskararen inguruko ikerketa eta interesa aspaldirik dator, baina XIX. mendean hazi zen batez ere. Europan garaian garai indarrean zeuden joera ideologikoez eta zientifikoez eragina izan dute hizkuntzalaritza orokorraren esparruan eta, horrenbestez, baita euskal hizkuntzalaritzarenean ere.

Atal honetan sartutako dokumentu zaharrak euskararen gaineko disertazio eta gramatika zaharrak dira.

### Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
Larramendiren <i>Diccionario Trilingüe</i>	1745	BGN, FAG/123
Euskararen koadro analitiko eta gramatikala (Beltzuntze)	ca. 1858	AGN, AP_BONA-PARTE, N.6
Erronkariaren gaineko hiztegi eta oharrak (L. L. Bona-parte)	XIX	AGN, AP_BONA-PARTE, N.114
Van Eysen <i>Le verbe auxiliaire basque</i>	1874	AGN, FBH/1248(2)
Arturo Campionen <i>Gramática de los cuatro dialectos literarios</i>	1884-1886	AGN, FBH/1160




Beltzuntzeren Euskararen koadro analitiko eta gramatikala  
(XIX. m.)  
(NEAN. AP\_BONAPARTE, N.6)



Ikerketak ematen dio balioa agiriari: zer jasotzen duen, noizkoa den, nongoa den eta egungo gizartearentzat zergatik den garrantzitsua argitzen du. Horren faltan, paper zaharra besterik ez da. Bada, azken hamarkadetan Euskal Filologia unibertsitatean sartu izanak ekarri du filologiaren eta hizkuntzalaritza orokorraren estandar teoriko-metodologikoak aplikatzea euskararen ikerkuntzan.

Bloke honek Euskal Filologiaren alorreko obra garrantzitsu zenbaiten lagin bat dakar, bai eta berriki ekoiztitako ekarpen zenbait ere.



Axularren Geroren edizio kritikoa (2015. urtea)  
(Aziti Bihia hizkuntzalari eta filologoen elkartearen funtsa)

Atal honetan erakutsitako dokumentuen zerrenda:

DOKUMENTUA	URTEA/MENDEA	KOKAGUNEA
Koldo Mitxelenaren <i>Fonética Histórica Vasca</i>	1961	Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte
J. Apezetxearen <i>Joaquín de Lizarraga (1748-1835): un escritor navarro en euskara</i>	1990	AGN, 929 Lizarraga APE
J. M. Satrustegiren <i>Euskal Testu Zaharrak I</i>	1987	Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte
Iñaki Caminoren <i>Hego-nafarrera</i>	2004	AGN, 81'28(NA) CAM / AGN, 27-4 AXU
Blanca Urgellen <i>Geroren edizioa</i>	2015	Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte
Urtzi Regueroren goi-nafarrearari buruzko doktorego tesia	2017	Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte
Materraren <i>Do(c)trina Christianaren edizioa</i>	2017	Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte

# Antolakuntza eta komisariotza

## Komisariotza

- Ekaitz Santazilia
- Borja Ariztimuño
- Maitena Duhalde
- Dorota Krajewska
- Eneko Zuloaga

## Funtsen jatorria eta esker-ematea

- Nafarroako Errege Artxibo Nagusia
- Iruñeko Udal Artxiboa
- Iruñeko Katedraleko Artxiboa
- Nafarroako Liburutegi Nagusia
- Iruñeko Aita Kaputxinoen Biblioteka
- Koldo Mitxelena Kulturunea (Gipuzkoako Foru Aldundia)
- Jose Angel Irigarai eta Javier Irigarai
- Diez de Ultzurrun-Sagala familia
- Zubeldia-Lizarraga eta Flores-Ezkurdia familiak (Lakuntza)
- Aziti Bihia Hizkuntzalari eta Filologoen Elkarte

## Ekoizpena

- Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

## Antolakuntza